

Kameradun gizona (Человек с киноаппаратом), Dziga Vertov, 1929.

# ARTE ETA TEKNOLOGIA: IKUS-ENTZUNEZKOAK

*Egilea:*
***Aida Vallejo Vallejo***
UPV/EHU

# AURKEZPENA:

"Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak" izeneko kurtsoaren atal bat sortzen dute testu hauek.
Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) argitaratu ditu OCW (Open Course Ware) proiektuaren barne.

Kurtso osoa ikusteko, bilatu web-gune honetan: ocw.ehu.es, 6. zk. (2013 urtean), "Giza Zientziak" ("Arte y Humanidades") atalean .

*Nola aipatu:*
Vallejo, Aida (2013) "Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak", *OCW UPV/EHU-an,* 6.zk. http://ocw.ehu.es (Lizentzia Creative Commons: BY-NC-SA)

***Egile eskubideei buruzko argibideak:***

*Lan hau Creative Commons lizentziapean argitaratuta dago. Horregatik erabiltzaileak kopiatzeko, banatzeko eta komunikatzeko baimena dauka honako baldintza hauek betetzen badira: egilea aipatu, helburu komertzialetarako ez erabili, eta jatorrizko materiala edo egokitutako materiala berriro argitaratzen baditu, hauek libreki lizentzia berdinpean eskaini.*

*Lan honetan erabilitako irudi gehienak Creative Commons lizentziapean argitaratuta daude. Jatorrizko web-gunea ikusteko, klikatu irudiaren alboko gezia.*

*Beste kasuetan, irudien autoreak aipatzen dira, Jabetza Intelektualaren legeak betez.*

# 1.go Gaia:
# **IRUDIA**

# 1.go Gaia: IRUDIA (aurkibidea)

1. *Argazkigintza analogikoa.*
2. *Fokatze eta koadratze.*
3. *Reflex kameraren funtzionamendua (diafragma eta obturazio-abiadura).*
4. *Argazkigintza digitala (formatuak, kalitateak, bereizmena).*
5. ***Plano-motak.***

# PLANO-MOTAK

**Planoaren tamainaren** arabera (erakutsitako distantzia):

- *Lehen lehen plano*
- *Lehen plano*
- *Plano ertain motza*
- *Plano ertain luzea*
- *Plano amerikar*
- *Plano orokorra*
- *Plano orokor nagusia*
- *Xehe plano*

**Ikuspegiaren** arabera:

- *Plano subjektibo*

**Ikuspuntuaren** arabera (angeluak):

- *Plano pikatu*
- *Plano kontrapikatu*
- *Plano nadir*
- *Plano zenital*

# PLANO-MOTAK PLANOAREN TAMAINAREN ARABERA (ERAKUTSITAKO DISTANTZIA):

- *Lehen lehen plano*
- *Lehen plano*
- *Plano ertain motza*
- *Plano ertain luzea*
- *Plano amerikar*
- *Plano orokorra*
- *Plano orokor nagusia*
- *Xehe plano*

# Lehen lehen plano



*F for Fake (Orson Welles, 1974)*

Pertsona baten burua erakusten du, goiko eta beheko parteak moztuta.

Pertsonaren sentimenduak transmititzeko erabiltzen da.

# Lehen plano



*Balseros (Carles Bosch y Josep María Domènech, 2002)*

Pertsona baten burua erakusten du sorbaldara arte.

Plano-contraplano moduan editatutako solasaldietan erabili ohi da zineman.

# Plano ertain motza



*La espalda del mundo (Javier Corcuera, 2000)*

Pertsonaren gorputza gerriko goiko partera arte erakusten duen planoa da.

# Plano ertain luzea




*La noche del golpe de estado (La nuit du coup d'État (Lisbonne, avril 1974), Ginette Lavigne, 2001).*

Pertsonaren gorputza gerriko beheko partera arte erakusten duen planoa da.

# Plano amerikar



*Bowling for Columbine (Michael Moore, 2002)*

Pertsona baten gorputza belaunetara arte erakusten duen planoa da.

# Plano orokorra



*Nömadak tx (Raúl de la Fuente, 2006)*

Pertsonen gorputz osoa eta haien ingurua edo kokalekua erakusten dituen planoa da.

# Plano orokor nagusia



*Shoah (Claude Lanzmann, 1985)*

Plano oso irekia. Paisaia ematen dio garrantzia.

# Xehe plano



*El sol del membrillo (Víctor Erice, 1992)*

Objektu edo pertsona baten zati bat erakusten duen planoa da.

# PLANO-MOTAK **IKUSPEGIAREN** ARABERA:

- *Plano subjektibo*

# Plano subjektibo



*Los espigadores y la espigadora (Les glaneurs et la glaneuse, Agnès Varda, 2000)*

Pertsonai baten subjektibitatea erakusten duen planoa da.

Normalean gorputzaren parte bat agertzen da koadroan.

# PLANO-MOTAK **IKUSPUNTUAREN** ARABERA (ANGELUAK):

- *Plano pikatu*
- *Plano kontrapikatu*
- *Plano nadir*
- *Plano zenital*

# Plano pikatu



*Ciudadano Kane (Citizen kane, Orson Welles, 1941)*

Objektu edo pertsonaren goiko angelutik hartutako planoa da.

Ikusleari nagusitasun sentimendua transmititzen dio.

# Plano kontrapikatu



*A propósito de Niza (A propos de Nice, Jean Vigo, 1930)*

Objektu edo pertsonaren beheko angelutik hartutako planoa da.

Ikusleari gutxiagotasun sentimendua transmititzen dio.

# Plano nadir



*Fotografía de Arndt Laude*

Beheko angelutik hartutako planoa da. Kameraren objektiboa guztiz gora bideratuta dago.

# Plano zenital



*Vértigo. (De entre los muertos). Alfred Htitchcock, 1959.*

Goiko angelutik hartutako irudia da. Kameraren objektiboa guztiz behera bideratuta dago.